

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko uztailaren 16a

IV. urtea • 164. zenbakia • DOAN BANATZEKO

BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA



FELIX IRIARTE / KAZETARIA

"Arabako Diputazioak badu zerikusirik 'El Periódico de Álava'-ren itxierarekin" /8-9

Goienka2a

Kamisetak:
ibarrekoak ere,
moda berriekin bat

ASTEKO GAIA: PUNTUKAKO BAIMENA EZARRI NAHI DA

Gurean ere, gidabaimena berbegai

Puntu bidezko gidabaimena ezarri nahi du Espainiako Gobernuak datorren urtean. Horrek, jakina, debagoiendarron gidatzeko moduan eragina izango du. Izan ere, neurri horren helburua da istripu kopurua murriztea, eta horretarako, arau-hauste bakoitzeko puntuak kenduko zaizkio gidariari.

Urtebete falta den arren, eztabaida piztu da dagoeneko, baita geurean ere. Oro har, hemengo adituek ondo ikusten dute gidabaimen mota berria; hala ere, hainbat arazo ikusten dizkiote. Besteak beste, esaten dute ez dela nahikoa izango istripuak murrizteko, baldin eta gizartea kontzientziatzen ez bada. /2-3

Fagorrek negozio unitate berria aurkeztu du

Etxerako sistema eta zerbitzu aurreratuak garatzeko eta saltzeko negozio area berria aurkeztu zuen Fagorrek egunean, Oñatin. Datozen hiru urteetan, 2.000 etxe baino gehiagotan sistema domotikoak ezartzea aurreikusten du Fagorrek.

Gaur egun Espainiako estatua da area berri honen merkatu nagusia. Hala ere, etorkizunean, Europa eta Hego Amerikako merkatuetara zabaltzea ez dute baztertzen. 2004-2007 epealdirako fakturazioak 9 milioi euro gaindituko dituela esan zuten. /4



LEIRE KORTABARRIA

Debagoienetik Tourrera

Kamiseta laranja jantzi eta Pirinioetara abiatu da Debagoienetik ere jende pilo Tourra ikustera. Gaurko eta biharko etapa menditsuetan, kamino bazterrean egongo dira txirringulariei animuak ematen. Goiko argazkian ageri direnak atzo, eguena, atera ziren Oñatitik. Garmendia eta Odriozola lagunartek eta Lizarralde Kirolak dendak antolatutako bidaian joan dira, 200 lagun inguru, hiru autobus eta kamioneta bat. Kirolariak ikusteaz gain, asteburua jai giroan pasatzea da helburua. Goienako lantalde bat ere haiekin joan da Pirinioetara, eta han ateratako argazki eta irudiak Asteleheneko Goienkaria-n eta GOITBk astelehen iluntzean eskainiko duen saio berezian ikus ahal izango dituzue.

'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'-N, DEBAGOIENDARRAK TOURREAN!

ELGETA

Gaur inauguratu dute nagusiendako zentroa

Gaur, egubakoitza, goizean inauguratu dute Domingo Iturbe kalean Elgetako nagusiendako zentro balioanizduna. Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak gain, herriko hainbat edadetak ere egin du bertara bisita. Bi solairu ditu zentroak: goian, etxebizitza babestua, eta behean, eguneko zentroa. /7

ARRASATE BIDAIK

Konfiantza osoko zure bidaia agentzia

ZABALDU BERRIA

Kontzeziño kalea 12
ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30
Faxa.: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es



SEAT ALTEA BERRIA
DEPORTIBOTASUNA,
DISEINUA ETA
TEKNOLOGIA.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Zorroztasuna baino l

- Puntuzko gidabaimena ezarri nahi du Madrilek
- Helburua da auto-istripu eta heriotza gutxiago egotea
- Debagoieneko adituek ez dute txarto ikusten, mentalitate aldaketaren barne badago

LEIRE KORTABARRIA

Joan den asteburuan, 32 lagun hil ziren Estatuko errepideetan, auto-istripuz; horietako 21 gazteak ziren, 30 urtetik beherakoak, hain zuzen. Zoritzarrez, Debagoienan eta Euskal Herri osoan ere sarri jasotzen ditugu auto-istripu larrien gaineko berriak. Horrekin bukatzeko asmoz, gure gidatzeko modua aldatuko duen neurria eztabaidatzen ari da Espainiako Gobernuak: puntu bidezko gidabaimena. Horren arabera, gidari bakoitzak hainbat puntu ditu; araua hausten doan eran, eta arau-haustearen arabera, puntuak kentzen zaizkio. Hutsean geratzerakoan, gida-



Arau-urratze arin zein larriek izango dute puntutan eragina, baina erabakitzeke dago arau-hauste bakoitzari zein zigor ipiniko dioten.

LEIRE KORTABARRIA

baimena berriro atera beharko du, eta baliteke epe bat ematea ateratzeko aukerarik gabe. Azken berrien arabera, datorren urtean indarrean jarriko dute Estatu osoan. Iparraldean, 1992.etik erabiltzen dute hori.

Europako herri aurreratuetan —Frantziar, Alemanian,

Erresuma Batuan...— aspalditik erabiltzen da sistema hori, eta hainbat desberdintasun daude ereduon artean, baina guztietan lortu da istripu gutxiago egotea. Orain eztabaidatzen ari dena da geurean zein eredu ezarriko den. Ezbairik ez duena da neurri horrekin gidariok askoz ere arre-

ta eta kontu handiagoz ibiliko direla bolantearen aurrean.

“DENBORAK ESANGO DU”

Galdetutako Debagoieneko adituek denetarik iritziak dituzte. Oro har, puntu bidezko gidabaimena ez dute txarto ikusten, baina jarrera berri baten osagarri

bakarrik izan daitekeela uste dute.

Rafa Etxabe auto-saltzaile eta eskarmentu handiko gidariak dio: “gidabaimen mota hori ondo dago, istripu kopurua gutxitzen laguntzen badu; baina, hori baino garrantzitsuago deritzot kontzientziario eta hez-

Hainbat sistema, gurerako eredu

Erabakitzeke dago Debagoienan zein sistema ezarriko den, baina badirudi Frantziako Estatuan erabiltzen dutenaren oso antzekoa izango dela. Han, 12 puntu-ekin abiatzen da gidaria; 6 puntu ditu gidari berriak. Frantziar sistema puntuak kentzean oinarritzen da. Adibide batzuk ematearren, segurtasun-gerrikoa ez eramateak puntu bat galarazten du; abiadura-muga 26-40 km. bitartean gainditzeak, 3 puntu; gorritz dagoen semaforoan ez gelditzeak lagun hurkoa arriskuan jartzen duela kontsideratzen da, eta 4 puntu kentzen ditu; eta istripu-lekutik alde egitea zaurituei lagundu barik 6 puntu-ko arau-haustea da. Baimena kentzen dioten batek 6 hilabetez itxaron behar du berriro ateratzeko aukera izateko.

Metodo frantsesak %25ean jaitsi du errepideetako hilkortasun tasa, baina gogor kritikatzeko dute, prebentzioan baino, errepresioan oinarritzen ei delako.

Gurerako eztabaidatzen ari den sistemak Frantziakoarekin du antzekotasun handiena; izan ere, guretako ere 12 puntuko eta puntuak kentzeko metodoa ari da eztabaidatzen. Baina Erresuma Batukoaren hainbat elementu hartzen ditu: nagusia da arau-haustek hiru multzotan sailkatzen direla, larritasunaren arabera. Era berean, hainbat berriren arabera, urte erdi edo urtebete itxoin beharko litzateke gidabaimena berriro lortu ahal izateko.

Benetan zelakoa izango den ikusteko, ordea, oraindik denbora behar izango dugu.

Autoeskoletan greba

Ibarreko autoeskoletan, oro har, gutxi eragin die Gipuzkoako autoeskolendako greba deialdiak. Joan den martitzenean, hilak 13, Azpeitian azterketa zuten ibarreko hainbat eskolek, baina ezin izan zuten egin. Beasainen egiten dutenei, ordea, ez zien lanuzteak eragin.

Gurean, jarraipena erdipurdikoa izan da. Izan ere, greba autoeskoletako langileek bultzatzen dute. ELA eta LAB sindikatuek deitu dute, eta helburu batzuk dira irakasleek lan egiten dituzten ordu guztiak ordaintzea —salatzen dute urteko 100 lan-ordu aurreikusten duela komenioak, baina askoz gehiago egiten dituztela— eta teoria eta praktikako irakasleak neurri berean egotea, besteak beste. Kontua da Debagoieneko autoeskola gehienak familia-enpresak direla, eta ez dituztela langilerik, salbuespenak salbuespen. Ibarrekoen iritziak denetarikoa izan dira: batzuek “zentsuzkoa” ikusten dute greba, beste batzuek uste dute “guztizon onerako” akordio batera iritsi beharko liritekeela laster.

ehenago, hezkuntza

IBAN PEÑAKOBA / AUTOESKOLAKO IRAKASLEA

“Garrantzitsua da txikitatik beste modu batera hezteak: etxean, ikastetxean...”

Arrasaten autoeskolako irakaslea da Iban Peñakoba. Ibarreko beste aditu batzuen antzeko iritzia du berak: puntuak gidabaimena ona da, baina kultura aldaketa barik, ez du eraginik izango.

Zer iruditzen zaizu puntu bidezko gidabaimena?

Printzipioz, ondo iruditzen zait. Frantzia, Alemanian... istripu gutxiago dago horren eraginez, eta onerako baldin bada, ondo deritzot. Hainbat zehaztapen egingo nituzke, ordea: gidari guztiok berdinak ez garen bezala, aplikazioa ere ez litzateke kasu guztietan berbera izan beharko. Kamioilari, taxilariak... marjin handiagoa izan beharko lukete.

Eta gidabaimena lortu berri dutenei hasieratik puntu gutxiago emateari, zer deritzozu?

Hori ere ez dut argi ikusten. Ikasi-berriek kontu handiagoa dute, arreta handiagoz ibiltzen dira. Urtebetetera-edo galtzen dugu arreta, orduan uste dugulako dagoeneko oso ondo gidatzen dugula. Ordutik aurrera izaten dira istripu gehienak.

Debagoieneko errepideetan egunero ibiltzen zara. Debagoiendarrok zer moduzko gidariak gara, zure iritziz?

Maila ertainekoak. Ez oso onak, ez eta oso txarrak ere, baina beste toki batzuetan bezala. Konparaketak egiteko, adibidez, Frantziara jo beharko genuke: Frantziarekin konparatuta, badago aldea, bai; han, mai-



la altuagoa da. Esan bezala, uste dut gidari guztiok gidatzen duguna baino hobeto gidatzen dugula sinistuta gaudela. Gidatzea eguneroko gauza bihurtzen denean, ohitu egiten gara eta ahaztu egiten dugu oso ekintza arriskutsua dela. Segurtasun neurriak ere ez ditugu beti betetzen: segurtasun-gerrikoa, umeak lotuta eramatea... Azken baten, gidatzerakoan hiru faktore daude: autoa, errepidea eta gizakia, eta azken hori da erabakigarria. Beste biak hobekuntza edo txarragoak izan daitezke, baina gizakiak erabakitzen du.

Gakoa mentalitatea aldatzea izan daitekeela, hortaz.

Bai. Egoera hau dugun kultura *motorizatuaren* barne dago. Auto-eskolara 18 urterekin datorren gaztetxoa ez dator gidatzen ikastera, gidabaimena ateratzera baizik. Txikitatik beste modu batera hezteak da garrantzitsuena: etxean, ikastetxean...

Trafiko lege berriak segurtasun neurriak zorrotzitu ditu... txalekoa dugu horren azken adierazpena.

Bai, eta ezinbestekoak dira. Autoak ere, gero eta seguruagoak egiten dituzte. Neurri horiek, gidabaimen berria... ondo daude, baina ez dute ezertarako balio jendeak ez badu jarrera aldatzen.

kuntza kanpaina egitea". Etxaberen ustetan, jarrera aldaketa hori erakundeek ere hartu beharko lukete: "Ertzaintzak eta, zigorrak ipintzearen jarraia dute; hori baino hobeto litzateke errepidea zaintzeko jarraia izango balute, ezer gerta ez dadin".

Metodo horri kritikak zaion alderdi bat da sarrien ibiltzen diren gidariak kaltetuko dituela, kasu askotan adituenak direnak, gainera. Juanito Saizar autobus gidari debagoiendarrek honela diosku: "Nik 9 ordu ematen ditut egunero errepidean, eta ez zait bidezkoa iruditzen pare bat ordu ematen ditue-

naren puntu berberak edukitzea, edo puntuok galtzeko aukera berbera". Saizarrek gaineratzen du, hala ere, sistemak trebezia gutxiena duena saritzen badu ere, gogorren horixe zigortzen duela, baita.

Gidabaimen horren helburu nagusia beteko den ere zalan-tzan jartzen du: "Azken baten,

istripu gutxiago izatea kultura eta hezkuntza kontua da. Denborak esango du neurri horrek arrakasta duen edo ez".

UDALTZAIN ETA ERTZAINAK

Hezkuntza, hortaz; baina ez gidariondako bakarrik, zigorrak ipintzen dituztenendako ere bai. Hala

Gurean zein sistema ezarriko den eztabaidatzen ari dira; Frantziaren antzekoa, akaso

Ibarrekoek diote istripuak saihestea, azken baten, gidarion esku dagoela

Profesionalek diote isun-jartzaileek lana ondo egiteak zeresan handia izango duela

uste dute galdetutako hainbatek. Tartean, zenbait taxilariak.

Bergarako hainbat taxi-gidari diotenez, "zigorrak ipini behar dituenaren umorearen arabera doa. Guk eskatzen dugu udaltzainek, ertzainek... gauzak behar bezala egitea", diote. Moreno bergarar taxilariak dioenez, "udaltzain batek isuna ipini zidan autoa taxi-geltokian aparkatuta edukitzeagatik. Aurrerantzean, gure geltokian egoteagatik puntuak kenduko dizkigute, bada? Arau-urratze larrietarako, oso ondo deritzot; baina eurek ere egin ditzatela gauzak behar bezala", da bere kexua.

Beste gidari baten iritziz, gidabaimen mota berriak "ez gaitu kaltetuko; alderantziz, ondo gidatzen dugunon onerako izango da. Baina guretako salbuespenak sartuko nituzke, eta ez ditzatela arauak guztiondako berdin aplikatu".

ADMINISTRAZIEN ELKARLANA

Oraindik urak bidea egin dezake, hortaz, neurri eztabaidatu hori indarrean jarri arte. Epe horretan, arazo teknikoak ere konpondu beharko dituzte erakundeok. EAEn, adibidez, errepideen eskumena Eusko Jaurlaritzak du, baina puntuak kentzeko eskumena Espainiako Trafiko Zuzendaritza Orokorrak izango du, eta gidari bakoitzaren gaineko informazioa zentralizatu beharko da. Jaurlaritzak dioenez, "neurria onartzeke dago, bai, baina guk behar diren egoitzapen guztiak egingo ditugu".

Txalekoa, beti aldean

Bukatu da epea: uztailearen 23tik aurrera, derrigorrezkoa izango da txaleko islagailua autoan eramatea. Urtarrila ezkerreko, autobus eta kamioilariendako da derrigorrezkoa; orain, baita gainerako gidariondako ere. Arau garrantzitsu bat da txalekoa aldean eraman behar dugula, ez maletategian, izan ere, errepidean gaudela autotik irten behar badugu, dagoeneko txalekoa soinean irten behar dugu.

Debagoiendarrok ez gara atzera begira geratu, saltzaileen esanetan. "Jendea berehala etorri zen erostera, ez dute epe bukaerara arte itxaron", diosku auto osagarriendako denda bateko arduradunak.

Oraindik txalekoa ez dutenek gasolindegia, supermerkatu, burdindegia, auto osagarriendako denda eta baita farmazietan ere eros dezakete. Neurri bakarra dago, eta bi koloretan, horia eta laranja, nahiz eta hori kolorekoa izan gehien saltzen dena. Bost eta hamar euro arteko prezioa du, saltokiaren arabera.



Etixerako sistema eta zerbitzu aurreratatuak, Fagor enpresak egindako apustu berria

Datozen hiru urteotan, 2.000 etxe baino gehiagotan, sistema domotikoak ezarri nahi dituzte

EDU MENDIBIL

Etixerako sistema eta zerbitzu aurreratatuak garatzeko eta saltzeko negozio area berria sortu du Fagorrek. Eguenean egin zuten komunikabideen aurreko aurkezpena Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak Oñatin duen plantan.

Besteak beste, Andoni Gartzia Oñatiko alkatea, Jesus Catania MCC taldeko presidentea, Pablo Mongelos Fagor Etxetresnetako zuzendari orokorra eta Jose Ramon Arenaza Fagorreko Sistema Aurreratuen gerentea izan ziren eguenean Oñatin, Santxolopetegi auzoan, egindako aurkezpenean. Ana Agirre Industria sailburuak ez zuen azken orduan etortzerik izan eta Jose Ignacio Zudaire Industria sailburuordeak bete zuen haren lekua.

Pablo Mongelosek azpimarratu zuen moduan, orain dela 20 urte egin zuen Fagorrek domotikaren aldeko apustua: "Giza kapitela eta teknologikoa ditugu atzetik, eta negozio berri honi esker produktu eta zerbitzu domotiko berritzaileen eskaintza oso bat sortu eta salduko dugu".

PRODUKZIOA HIRUKOIZTU

Etixerako Fagor Sistema Aurreratuen Areako planen arabera, datozen hiru urteotan 2.000 etxe



Jose Ramon Arenaza, Jesus Catania, Jose Ignacio Zudaire eta Pablo Mongelos, egueneko aurkezpenean.

baino gehiagotan sistema domotikoak ezartzea aurreikusten da. Aurreko 9 urteetan beste horrenbeste lortu dutela kontuan izanik, hazkunde erritmoa hirukoiztea ekarriko luke horrek. Jose Ramon Arenazak emandako datuen arabera, 2004-2007 epealdirako fakturazioak 9 milioi euro

**Espainiako Estatua
merkatu nagusia
bada ere, Europa eta
Hegoamerikara
zabaldu nahi dute**

gaindituko ditu: "Alde batetik Fagor Etxetresnetako Ikerketa eta Garapena jarduera bikoiztetik etorriko dena eta bestetik Giltzak Eskura proiektuak egiteagatik".

Gaur egun, Espainiako Estatua da area berri honen merkatu nagusia. Hala ere, etorkizuna,

nean, Europa eta Hego Amerikako merkatuetara zabaltzea ez dute baztertzen Fagorreko arduradunek. "Etxean erosotasuna eta bizi-kalitatea eskaintzen duten elementu guztien bateratzea geldiezina da, etxetresnen eta erabilzailearen arteko kontrola eta komunikazioa laster behar bihurtuko da, eta behar horri erantzuteko gertu egongo behar dugu", adierazi zuen Arenazak.

PUNTA-PUNTAKO TEKNOLOGIA

Jesus Cataniak, sektore honetan Fagor aitzindari izan dela ekarri zuen gogora: "Azken 20 urteotan proiektu oso garrantzitsuak aurrera eramane ditugu; besteak beste, Phillips eta Nokia marka prestigiotsuekin. Ikerlanen eskutik, punta-puntako teknologia garatu du Fagorrek eta, era berean, gurean lana sortzeko konpromisoa erakutsi dugu".

Azkenik, Jose Ignacio Zudaire Industria sailburuordeak hitza hartu zuen hitza: "Nagusiki Asia aldetik zetorren lehiakortasuna zela-eta, zalantza garaia bizi izan dugu azken urteotan. Lehiakortasun Foroa 2015 zabaldu genuen, tartean MCC taldearen laguntzarekin, eta hor ikusi da Euskal Herriko enpresak gertu daudela etorkizunari garrantia osoz aurre egiteko. Hortaz, zorterik onena opa dizuet erronka berri hau abian jartzeagatik".

FAGOR ETXETRESNAK TALDEA Abian jarritakoarekin, zortzi negozio area integratuta

Fagorrek domotika arloan lortutako aurrerapen teknologikoak, erabat berritzaileak diren produktuen garapenak, merkatuko eskaintzaren areagotzeak eta salmenten hazkundek ekarri dute, besteak beste, jardue- ra domotikoa enpresaren zortzigarren negozio area bihurtzea.

Beste zazpi areak hauek dira: Hotza, Garbiketa, Ontzi-garbigailuak, Egoketa, Konforta, Etxetresna Txikiak eta Sukaldeko Altxariak.

IKERKETA ETA GARAPENA Produktu berriak garatzeko, elkarlana ezinbestekoa

Etixerako sistema eta zerbitzu aurreratuen area Fagorrek, Oñatin, Santxolopetegi auzoan duen plantan kokatuko da. Hasiara baten, zazpi langilek jardungo dute bertan lanean, eta ondoko sailak izango ditu: Marketina, Ikerketa+Garapena, Erosketak, Komertziala eta Bezeroaren Zerbitzua. Produktuak garatzeko orduan, berriz, Ikerlan, Fagor Elektronika edota Fagorreko I+G zentralarekin elkarlanean arituko dira.

ETORKIZUNA, BERTAN Ezkutuko izaki inteligente bat gure esanetara

Gure etxeko tresnekin nolako harremana izan dezakegun ikusi ahal izan genuen eguenean. Nolabait esateko, ezkutuko izaki inteligentea izango dugu etxean eta ahotsaren edo irudiaren bitartez jarri ahal izango gara harremanetan harekin. Hainbat aukera eskainiko dizkigu eta zintzo-zintzo beteko ditu guk emandako aginduak: labea martxan jarri, garbigailua programatu... eta zerbait oker doanean abisatu egingo dugu.

ESPERIENTZIA Etixerako sistema aurreratuekin 20 urteko esperientzia

Ikerlan zentro teknologikoarekin elkarlanean, Fagorrek 20 urte inguru daramatza etxerako sistema aurreratuen esparruan lanean. Besteak beste, Fagor Domotika Sarea eta Maior-Domo Fagor garatu dituzte. Dagoeneko Espainiako 2.000 etxetan baino gehiagotan instalatu dituzte eta Maior-Domoaren hirugarren belaunaldia iritsi da dagoeneko. Etorkizuneko teknologiak dira domotikaren oinarria.



Herri Lagunak 6, behea.
Bergara • Tel.: 943 76 05 24

•Haur kotxeak
•Segurtasun aukiak
%10 %15 %20

•Arropak
%50 %60

Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



**Etxera eramaten
dizugu janaria**

- Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
- Gutxieneko eskaria 12 euro
- 1,8 euro etxera eramateagatik

• 20 minutuan etxean
• Arrasaten bakarrik

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

ABUZZTUAN ZABALIK!



GOIENKARIA

Bergarako Tokieder plazan dago kokatuta zentroa, eta ibar osorako eskaintzen du zerbitzua.

Uliazpi Fundazioaren eguneko zentroa erosiko du Diputazioak

Bergarako zentroa adimen atzerapen zorrotza duten pertsonendako da

ENEKO AZKARATE

Uliazpi Fundazioak Bergaran daukan eguneko zentroa erosiko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 690.167 euro (ia 112 milioi pezeta) bideratuko ditu erosketa hori egiteko. Oraingo astean hartu du erabakia Diputatuen Kontseiluak.

Uliazpi Fundazioak orain dela hiru urte zabaldu zuen Bergaran adimen atzerapen zorrotza duten pertsonendako eguneko zentroa. Zubillaga Doktorea izena du etxe horrek. Gaixotasun hori duten debagoiendarrendako zerbitzua ematea du helburu. Tokieder plazan dago kokatuta zentro hori eta 400 metro koadro ditu. 15-20 bat pertsona hartzeko prestatuta dago.

Bai eguneko atentzioa eta baita egoitza iraunkorra eta atsedenekoa ere eskaintzen ditu. Egoitza honen goiko aldean beste lokal bat dago, adimen atzerapen larriko hamar pertsona helduren etxebizitza babestu izateko egokituta dagoena. Lokal hori ere Diputazioak erosita dauka lehenago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak oraingo astean eman du eroske-

ta horren berri, Diputatuen Kontseiluak erosteko erabakia hartu eta gero. Koldo Azkoitia Diputatuen Kontseiluaren bozeramailearen esanetan, "lokala erostea Debagoienerako Uliazpi Fundazioak egindako proiektu aitzindari batean sar genezake". Koldo Azkoitiaren ustez, Diputazioak erosi duen lokal hori toki egokian dago —Espaloien ondoran— erabiltzaileen gizarteratzea, komunitatean parte hartzea eta autonomia bultzatzeko: "Bai Uliazpi Fundazioak eta baita Gipuzkoako Diputazioak ere nahi dugu etxe honetako jarduerak leku komunitarioetan egitea, era guztietako pertsonekin harremanak izanez, ez ezinduekin bakarrik", esan du Koldo Azkoitia bozeramaleak.

690.167 euro, hau da, ia 112 milioi pezeta, bideratuko ditu erosketa hori egiteko



Poloniar talde bat Arantzazun euskara ikasten

Poloniar talde bat Arantzazun da egunotan, euskara praktikatzeko eta Euskal Herria ezagutzeko helburuarekin. Bilboko Ulibarri euskaltegiaren bitartez etorri dira, eta bertan egongo dira zapatura arte. Dozena bat lagun dira orotara Arantzazuko Hospederian daudenak. Uztaileko lehen hamabostaldia igarotzeraz etorri dira, euskara praktikatzeko asmoz. Gramatika, entzumena eta mintzamena lantzen dituzte, besteak beste, eskola orduetan.

DEBAGOIENEAN LABUR

Ingurumeneko berrikuntza proiektuak abian jarriko dituzte MUK eta Jaurlaritzak

Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak ingurumeneko prestakuntza eta berrikuntza proiektuak abian jartzeko hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenak 280.000 euroko aurrekontua du, eta ingurumenari buruzko proiektuak garatzea ahalbidetuko du. Hitzarmenari esker Mondragon Unibertsitatean Ekodiseinu gela sortuko dute datorren ikasturtean; alegia, unibertsitarioak eta profesionalak ekodiseinu teknikan trebatzeko gela. Horrekin batera, ingurumen kudeaketa berritzeko proiektuak garatuko dituzte; besteak beste, enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzeko prestakuntza.

Autobidearen lanetarako lurren desjabetze prozesua hasi dute Eskoriatzan

Autobidearen lanetarako lurren desjabetze prozesua astelehenean hasi zuten Eskoriatzan. Kaltetuen elkarteko kideak, hala ere, ez dira ados azaldu prozesuarekin, haien ustez, agindutako aldaketak kontuan izan gabe hasi delako Diputazioa Eskoriatzarren lurrez jabetu nahian. Kaltetuen elkarteak gutuna bidali dio Koldo Azkoitia Lurralde Antolamendu diputatuari prozesua atzeratu dezan eskatuz, egin beharreko aldaketak kontuan izanda behin betiko proiektua nola geratzen den jakin arte.

'Euskal Y'-a 2010. urterako abian egoteko konpromisoa dute Gasteizek eta Madrilek

Madrilgo eta Gasteizko gobernuek Abiadura Handiko Trena 2010. urterako abian jartzeko konpromisoa hartu dutela adierazi du, oraingo astean, Alvaro Amann Garraio sailburuak, Espainiako Azpiegiturarako estatu idazkariarekin izandako bileraren ostean. Bestalde, AHT Gelditu! Elkarlana taldeak esan du Jaurlaritzak 'Euskal Y'-a inposatu nahi duela. Horretaz gain, udazkenerako protesta ekitaldiak iragarri ditu taldeak, "egitasmoa gelditzeko une egokia delako". Azpiegitura horretako lanak aurten hasi nahi dituzte.

EROSKI BIDAIAK

**Uztaila
OPOR
IRTEERA**

Oporrik gabe geratu ez zaitez, urteko unerik onenak erabat gozatu ditzazun, zure atseden egunak ezin hobeto igaro ditzazun... IRTEERAKO ESKAINTZA HANDIA.

EROSKI BIDAIAK

TENERIFE	279 €	Oinarriko prezioa pertsona bakoitzeko
07/1etik 07/25ra. 8 egun / 7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotela ***. Mantenu erdia.	46.422 Pta (+12 € erregaieren igoeragatik)	
SALOU	180 €	Oinarriko prezioa pertsona bakoitzeko
Uztaila. 8 egun / 7 gau. Eugenia Hotela *** sup. Mantenu erdia. HAURRAK: 1º DOHAINIK, 2º %50eko DESKONTUA.	29.945 Pta	
COSTA DEL SOL	189 €	Oinarriko prezioa pertsona bakoitzeko
TORREMOLINOS. Uztailaren 30ra arte. 8 egun / 7 gau. Stella Polaris Aparhotela (2/3 laguntzako). 3º PERTSONA DOHAINIK.	31.447 Pta	
BENIDORM	205 €	Oinarriko prezioa pertsona bakoitzeko
07/17tik 07/24ra. 8 egun / 7 gau. Hotels** (Onasol). Mantenu erdia. HAURRAK: 1º DOHAINIK, 2º %50eko DESKONTUA.	34.109 Pta	
TUNEZ	299 €	Oinarriko prezioa pertsona bakoitzeko
Irteera 07/26. 8 gau. Hegazkina Bilbotik. Sinbad Hotela***. Mantenu erdia.	49.450 Pta (+14 € erregaieren igoeragatik)	

Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

www.viajeseroski.es

Gutunak

Eskerrak emanez

Gutun honen bitartez AEDko kideok Dragoi Janera hurbildu zineten lagunoi, laguntzaileak barne, eskerrak eman nahi dizkizuegu. Dragoi Jana San Juan egunean urtero plazan antolatzen dugun ekintza da. Aurtengoan, AEKrekin elkarlanean burutu dugu.

Zoritzarrez, afari erdialdean euri zaparradak guztia zapuztu nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Egoera honen aurrean, zuek hartu zenuten erantzuna txalotzekoa izan zen, bertan jarraitu baitzenuten jai giroan. Horregatik, bertan zeundetenok emandako erantzuna eskertu nahi dugu, eta jakin hurrengo urtean ere bertan egoteko apustua egingo dugula.

Gure ekintzaren helburuak ondorengoak dira: herritarrekin ekintza ludiakoak izatea, euskal kultura bultzatzea, kultur ekintzak euskaraz bideratzea erabilera normalizatzeko asmoz. Azkenik, jaietan presentzia izatea. AED diru irabazi asmorik gabeko elkartearen heinean, afari honetan ere ez du inongo etekin ekonomikorik lortzen.

Besterik gabe, jarraitu euskararen alde egiten eta hurrengo urtean ere bat egingo dugu.

AED
Arrasate

Elgetako Jai batzordea eskerrak ematera

Elgetako Jai batzordetik eskerrak eman gura dizkiegu lagundu diguten guztiei. Izan ere, hainbat jenderen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke jaiak antolatzea. Inor ez ahazteko ez dugu pertsonen izenik aipatuko, baina, modu batera edo bestera lagundu diguzuen guztioi eskerrak berriz ere. Gogoratu jaietan parte hartuz ere jaietz goza daitekeela. Jaiak nola joan diren aztertzeke eta hurrengo urterako balorazio idatzi bat izan dezagun, astelehenean, uztailearen 19an, 21:00etan, bilera egingo dugu udaletxean. Bilerara herritar guztiok gonbidatuta zaudete zuen ekarpenak egiteko.

Hona hemen aurten jaietan laguntzaile izan ditugunak: Gaztetxea, Txirrindulari elkarteak, Pilota elkarteak, Ozkarbi, Guraso elkarteak, Espaloia Kooperatiba Elkarteak, Tabernarien elkarteak, Kutxa, Altube okindegia, Galgorri, Elgetako dendariak, Oñatz dantza taldea, Debagoieneko dantza taldeak eta Soralezueko, Eskoriatzako Udala, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko kirol zerbitzuak, dantzako argazki erakusketa

prestatzen lagundu digutenak, Euskal Jaian lagundu zigutenak, afari herrikoian lagundu zuten guztiak, Larrain dantzarekin lagundu eta dantzatu zutenak, jubilatuen bazkarian lagundu zutenak, bolo txapelketak antolatzen ibili direnak, animaliekin lagundu digutenak, buruhandiekin ibili direnak, plazako txokolatea prestatu zutenak, azokan lagundu zutenak, dantza lehiaketa antolatzen lagundu digutenak, sardinak prestatu zituztenak, bailak mugitzen ibili zirenak...

ELGETAKO JAI BATZORDEA
Elgeta

Negoziatzeko eskubidea

Ekin eta uztailean zehar udal administrazioari langileok hainbat lanuzte egin ditugu lan hitzarmenaren defentsan. Udal ordezkarik politikoei aukeratu dute udal autonomia alde batera utzi, eta Leioako alkate edo Berrobiko zinegotzien eskuetan jartzea Arrasateko langileen lan baldintzak. Baina, inondik inora ezin dutena egin guk Arrasateko langileok aukeratu ez dugun ordezkaritza batekin sinatu guri ezarri nahi diguten konbenioa. Hori guk bakarrik ordezkatu dezakegu, hala nahi izanez gero! Zenbat ikastaro egin beharko dute hain errazak diren gauzak ulertzeko?

Idatzi honen bitartez, adierazten dugu guk ezin dugula negoziatu lan egutegia, adibidez, UPNrekin, baina politikoei ere ezin dutela negoziatu gure hitzarmena CCOO sindikatuarekin.

Orain hilabete batzuk zalantzan geunden gehiengoaren duten sindikatuek zuzen jokatu ote zuten Eudelekin dagoen negoziazio mahaitik alde egin zuten. Haien argudioak entzun eta gero, batez ere Eudelen "jarraibide berri-tzaileak" irakurri eta gero, planteatzen duten zer bakarra baita sinatu edo ez haiek nahi dutena, arazoa argi dago.

Baina, batez ere, "tokiko negoziazio mahaia"-ren azken eta, orain arte, bilerak bakarrik egin denean ekainaren 22an; izan ere, Arrasateko Udaleko ordezkarik sindikalak (ELA, ESK eta LAB) joan ginen bilerara, alde batetik eszeptiko joan ginen eta, bestetik, zer edo zer espero genuen, borondate oneko zirrikituraren bat edo zentzuzko zer edo zer izango zutelakoan ordezkarik politikoei, haien gidari Ignacio Lakunza alkatearekin batera.

Ezin da negoziatu jarrera horrekin, Mahaiaren izena bera ere ukatu egiten denean, ez dituzte proposamenak entzun nahi eta udal autonomia hauxe bakarrik da, "legezko zama astuna", udalbatzarrek egiten behartzen duena eta ordezkarik sindikal burugor batzuekin bile-

rak pairatzen behartzen duena. Ez dugu etsi nahi, eta ez dugu jarraitu nahi egoera honekin!

Ez duzue hau ere jakin nahi: Ez dugula eskatzen diru gehiago, dirua hobeto banatzeko baino; gutxien duten langileen baldintzak hobetzea planteatzen dugula; familia zaintzak hobetzeko aukera; zerbitzu publikoen kalitatea mantentzea bertako langileekin eta sistemaz behar izan gabe azpikontratarik eta, gainera, koste ekonomiko handirik gabe eskatzen dugu.

Jakina, ez du zerikusirik zuek alderdi kideok duzuen kostuarekin!

Ez dugu nahi funtzionatu honela, dekretazoen bidez, elkarrizketa barik eta negoziatzeko aukera barik.

Horregatik, jarraitzen dugu exijitzen: Lan akordioa Arrasateko Udalean; Derrigorrezkoa den Negoziazio mahai bat Arrasateko Udalean. Elgeta herrian langileen lan baldintzak negoziatu badira, zer eragozten dio Arrasateko alkateari arazoa konpontzeko ahalginak jartzea eta udal langileen elkarbizitza hobetzeko neurriak hartzea?

Idatzi honen bitartez, ordezkarik politikoei gonbidatzen diegu herri komunikabideetan mahai inguru batera, non alde bakoitzak hitza izango duen, herritarrek gai honen inguruan iritzia izan dezan.

Eta aldi berean, adierazi nahi dugu lan uzteak egiten jarraituko dugula, horrela uztailearen 21ean, udal langileok egun osoko greba egingo dugu.

ELA, ESK, LAB
Arrasate

Oihane Errazkin, maite zaitugu!

Gure senide, herri honen alaba Oihane Errazkin gazte donostiarraren irribarrearekin amaitu dute, hil egin digute. Heriotza eta samina eragin dute berriro gure eta preso dituzten gure senide eta lagunaren aurka politika suntsitzaileak indarrean dituzten Pariseko eta Madrilgo gobernuek. Askatasun nahia erbestearrekin, kartzelarekin, torturekin, heriotzarekin ordainarazten digute. Mendeku goseak bultzaturik lagunaren bisitak ukatu egiten dituzte, gure senide eta lagunak bakartu egiten dituzte, euskal preso politikoei isolamendu osoan bizitzera kondenatu nahi dituzte. Politikoki eta pertsona gisara suntsitu nahi dituzte eta horretarako, esku artean dituzten bitarteko guztiak erabiltzen dituzte, sakabanaketa politika ez baita soilik gure senide eta lagunak Euskal Herritik eramatea, atzerriratzea, sakabanaketa politika gure eta preso dituzten gure senide eta lagunaren heriotza helburu duen politika baita,

hilabete buruan, Oihaneren eta Leoren heriotzak eragin dituen politika.

Bizi nahi dugu eta bizirik nahi ditugu, eta horrenbeste samin eragiten ari den gatazka politiko honek irtenbide politiko, demokratiko eta behin betikoa baduela badakigu. Irtenbide hori lortzeko bidean ezinbestekoa da, ordea, euskal preso politikoei Euskal Herriratzea, egun hitza ukatzeko urrundurik, bakarturik, egunero heriotzari aurre egiten ari diren lagun eta senideak Euskal Herriratzea. Oihaneri hitza kendu diote eta bere omenez antolatuak izan diren ekimenetan dispersioa bultzatu zuten beraiek guri ere hitza kendu nahi izan digute. Aurrera jarraituko dugu, ordea, euskal preso politikoei Euskal Herriratze bidean Oihane bidelagun izango dugula bai baitakigu, bere indarra eta kemena gure egingo baititugu. Negar tanta bakoitzarekin osatu dezagun guztiok euskal preso politikoei Euskal Herriratuko dituen uholdea. Oihane, maite zaitugu, zure irribarra gure artean izango da beti!

ETXERAT
Debagoiena

Zurkutzeko gurutzea: desegitea beti da errazago

Joan zen domekan jakin genuen Arrola Mendizale Elkarteak Zurkutzeko gurutzea, Oñatin, otsailean jarritako gurutzea moztu egin dutela. Gurutzea desagertu egin da eta ez dakigu nork eta zergatik kendu duen.

Guk ez genuen aparteko helbururik gurutzeko jartzerakoan. Onartzen dugu erlijio kutsuko ikur bat dela eta orain dela urte asko han gurutzea jarri zutenek izango zuten asmo edo itzaropenen bat. Guk, ahal genuen neurrian, gure arbasoek jarritako ikur bat berreskuratu besterik ez genuen egin. Ez genuen baimenik eskatu; hori bai, Aloña Mendi Elkarteak jakinaren gainean jarri genuen.

Iritzi asko egon daitezke gure mendietan dauden gurutze, ikur, plaka eta halakoak gainean. Ados ez egon ezkerro, jakinekua zen nork jarri zuen gurutze hura Zurkutzeko, plakan Arrola taldearen izena agertzen zen eta. Hala ere, inork ez zuen guregana jo kexatzera, horren ordez gurutzea apurtu dute.

Entzun eta hitz egiteko gertu geunden lehen eta hala jarraitzen dugu. Hori bai, ez dugu gurutzea apurtu eta desagerraraztea onartzen; are gutxiago egin den moduan eginda.

ARROLA MENDIZALE ELKARTEA
Antzuola

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Ane Berezibar

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

OÑATI

Chateaubernard herriarekin dagoen senidetzea ospatuko dute asteburuan

Duela bost urte senidetu ziren Oñati eta Frantziako Chateaubernard herria, eta urteurren hori ospatuko dute asteburu honetan. 50 lagun etorri dira guztira, eta Oñatiko 29 familiak etxean hartuko dituzte. Alemaniako Dürbach herriko eta Kantabriako Puente Viesgoko ordezkari bana ere etorri dira. Gaur, egubakoitza, ongi-etorria egin diete udaletxean, eta herria bisitatu dute. Bihar eta etzi, Legazpiko Lenbur zentroa eta Arantzazu bisitatuko dituzte eta kontzertuak egingo dituzte Santa Anan. /O.E.

ANTZUOLA

GOITBko jaietako programa berezia ikusi ahal izango dugu astelehenean

Datorren astelehenean, hilak 19, Antzuolako jaien gaineko programa berezia eskainiko dute GOITBn, gaueko hamarretan, hain zuzen ere. Eguaztenean, berriz, errepikapena eskainiko dute, 20:30ean.

Dagoeneko herriko hainbat etxebizitzatan ikus daiteke GOITB. Kontua da antena kolektiboa duten etxebizitza-multzoetan 40. kanalerako amplifikadorea jarri behar dela. Edozein instalatzailek jar dezake amplifikadorea. Antena arrunten kasuan, berriz, nahikoa da telebista sintonizatzea. /A.I.

ARAMAIO

Oporrak iritsi baino lehen esleitu nahi ditu udal zerbitzuak Aramaioko Udalak

Udalak esleitu ditu eskolako, udaletxe, kultura etxe, eta anbulatorioko garbiketarako lanak. Herriko enpresa batek egingo ditu; herriko kaleak ere garbituko ditu enpresa berak harik eta lanon behin betiko esleipena egin arte. Edozelan ere, oraindik zerbitzu dezente falta zaizkio Udalarari esleitzeko. Mertxe Mondragon alkateak esan digunez, jasotako eskaintzak aztertzen dabilta orain, bereziki, herrikoek egindakoak. Eta gaineratu zigun Udalaren asmoa dela oporrak baino lehen esleitzea guztia. /U.M.



ARRASATE

Kalean produktuak erakustea arautu nahi du Udalak

Saltoki askok kalearen edo espaloia zati bat aprobetxatzen dute produktuak erakusteko; baita ere oztopoak ipintzeko (lorontziak) saltokien aurrean ibilgailuek aparka ez dezaten. Udaltzaingoa egeera horiek aztertu eta txostena aurkeztu du, eta Udalak erabaki du espazio publikoaren erabilera hori arautu egingo dutela. Esaterako, janari-dendek legez ezin dituzte jakiak kalean ipini; horrenbestez, Udalak laster debekatu egingo diete jardunbide hori. Ibilgailuek aparkatu ez dezaten ipinitako oztopoen gainean, berriz, Udalak ez du zehazten kendu behar diren edo ez, baina bai zehazten du udaltzaingoa arreta handiagoarekin zaindu beharko dituela gaizki aparkatutako autoak. Eta gainerako saltokiek baimena eskatu beharko dute produktuak kalean ipintzeko. /U.M.

ELGETA

Gaur inauguratu dute Domingo Iturbe kaleko nagusiendako zentroa

Gaur goizean inauguratu dute Domingo Iturbe kalean Elgetako nagusiendako zentro balioanizduna.

Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkari ez gain, herriko hainbat edadetuk ere egin du zentro berrira bisita.

Goiko solairuan etxebizitza babestua dago. Bertan, sukaldea, egongela, hiru logela eta bainugela daude, eta hiru lagunendako tokiak izango dira.

Behoko solairuan, berriz, eguneko zentroa ipini dute. Bertan, bi mahai jarri dituzte aulkiekin eta baita besaulki batzuk ere. Erabilera anitzeko gela horrekin batera bainugela geriatrikoa, bulegoa eta biltegia ere badaude bertan.

Zentro hori zabaldua, herriko hirugarren adinekoek dituzten beharrei erantzun nahi diete.

DOMEKAN, ZABALIK

Inaugurazio ofiziala gaur egin arren, irailean hasiko da funtzionamenduan.

Izan ere, oraindik erabakitze dago zeinek kudeatuko duen egoitza. Lehiaketa publiko bidez egingo da bertako ardura-dunen aukeraketa eta interesatuek uztailaren 26ra arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko.

Irailean arte, baina, ez da itxita egongo zentroa, eta herritarrek aurrez izango dute ezagutzeko aukera.

Gaur bertan zentroa ezagutzetik izan ez dutenek, domekan, uztailaren 18an, ateak zabalik izango dituzte, honako ordutegian: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. /I.A.

Zertzelada

Zentro balioanizdunaren goiko solairuan etxebizitza babestua dago hiru logelarekin, eta azpian, berriz, eguneko zentroa zazpi lagunendako

BERGARA

Angiozarko San Migel parrokia konpontzen hasiko dira uda ostean

Angiozarko San Migel parrokia berritzeko lanak udazkenean hasiko dira. Aspaldian egoera txarrean dago eliza. Lehenbizi teilatua konpontzeko lanak egingo dira eta horren ostean azterketa geoteknikoa egingo da, egin beharreko lan integrala zehazteko.

Erretila egiteko lanek 126.212 milioi pezetako

aurrekontua daukate. Horietatik 60.101 euro Diputazioak ordainduko ditu.

Pitzadurak eta itoginak azaldu dira azken urteotan parrokiaren. Behin azterketa geoteknikoa egin eta gero, egin beharreko lanak zehaztuko dituzte. Edozein modutan ere, berritze sako beharko du Angiozarko parrokiak. /EDU MENDIBIL



San Migel parrokiako XV. mendeko aurrealde platereskoa.

ARETXABAleta

Etxebizitzak egingo dituzte Deba ibaiaren beste aldean: 428 etxe

Kirol etxe inguruan hasi eta Lausitta kalera bitartean 428 etxebizitza egingo dituzte, Deba ibaiaren beste aldean, hain zuzen. Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Bruesa enpresa sustatzailearekin sinatzea hitzarmena etxeok egiteko. Egingo dituzten 428 horietatik 100 babes ofizialekoak izango dira, 185ek Udalak finantzatuko prezioa izango dute, 45 sustatzailearen eskuetan geratuko dira lursailen jabeendako, 80k prezio librean izango dute, eta 18 familia bakarrekoak izango dira. /M.A.

ESKORIATZA

Lajarin artista eskoriatzarraren lana ikusgai Artium Museoan

Aitor Lajarin artista eskoriatzarraren artelana Artiumen dago ikusgai uztailaren 7tik irailaren 12ra. Aitorren asmoa izan da pintura margolanetatik haratago eramatea, betiko euskarritik ateratzea. Hala, eskultura eta bideoarekin ere jolastu du eskoriatzarrak. Kontsumoaren gizartetik hartutako zenbait irudirekin, asmatutako espazioak sortu ditu, arte abstraktua eta figuratiboa nahastuta.

Lajarinekin batera, beste sei euskal artistak ere erakusgai dute euren lana Gasteizen. /Z.V.M.

GATZAGA

Udalekuan dabilta gazteek kanpaldia egingo dute bihar Dorletan

Bihar, eguraldi ona eginez gero, kanpaldia egingo dute udalekuan dabilta gazteek eta haien gurasoek. Dorleta aldera joango dira 18:00etan. Kanpamendua prestatu, eta afaltzera erreka aldamez joango dira.

Domekan, berriz, mendi ibilaldiren bat egin gura luketela adierazi dute guraso elkartetik. Hain zuzen ere, astelehenean hasi zituzten udalekuen lehenengo astea osorik aprobetxatuko dute gatzagar gazteek, jolastu eta lagunekin egoteko. /Z.V.M.

Felix Iriarte

'EL PERIÓDICO DE ÁLAVA' EGUNKARIKO ZUZENDARIA

“Arabako Diputazioak badu zerikusirik ‘El Periódico de Álava’-ren itxierarekin”

Uztailaren 9an kalera ratu zuen azken zenbakia *El Periódico de Álava* egunkariak. Duela ia bederatzirte sortu zen egunkari hori, eta arrazoi ekonomikoak direla-eta itxi behar izan dute. Azken bi urte pasatxotan, egoera hobetzen hasi zen sasoiari, Felix Iriarte aretxabaletarra izan da *Arabako Egunkaria*-ko zuzendaria. Itxieraren arrazoiak kontatu dizkigu Felixek.

OIHANA ELORZA

Ia bederatzirte egin ditu kalean *El Periódico de Álava*-k.

Bai, abenduan beteko zituen bederatzirte. Araban bertan sortu zen edizio bakarra izan da. Urte hauetan ez da beste edizio lokalik egon Araban, eta egun ere ez dago. Beste egunkari batzuk badaude, noski, baina ez Araban bertan sortutakorik.

Sortu ere, asmo horrekin sortu zen?

Ni azken ia hiru urteetan izan naiz *El Periódico de Álava*-n, ez nituen hasierako egunak bizi izan, baina gehienbat hutsune hori betetzeko sortu zen, bai.

Arabako biztanle gehienek, ordea, *El Correo* egunkaria irakurtzen dute.

Marca egunkaria, esaterako, *El Correo* baino gehiago irakurtzen da, baina tira, ez naiz izenekin sartuko.

Gu bigarren irakurrienak ginen, eta hirugarrenari alde handia ateratzen genion; guk baino erdia baino gutxiago saltzen zuen hirugarrenak. Zenbakiak jasotzen dituzten neurgailuek emandako datuek erakusten dute hori. Emandako azken datuen arabera, 21.000 irakurle genituen Arabako lurraldean.

Arabako 200.000 pasatxo biztanle gaude. Horietatik, adinekoak eta 20 urtetik beherakoak kentzen baditugu, biztanleriaren %10ek *El Periódico de Álava* egunkaria irakurtzen zutela dio-



OIHANA ELORZA

te datuek. Kopuru hori oso garrantzitsua da.

Azken bi urteetan igo zen, batez ere, zuen irakurle kopurua, ezta?

Bai, 9.000tik 21.000ra. Igoera horrek publizitatean ere eragina izan du, noski; azkenaldi honetan publizitate gehiago izan dugu, eta horrek zorrak gutxitzen lagundu digu. Azken urteetan, erdia baino gehiago murriztu dugu zorra; %60, hain zuzen ere. Hala ere, itxi egin behar izan dugu.

Zergatik?

Arrazoi bat baino gehiago egongo dira, baina pisutsuene-

tako bat aipatzearen, Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak gurekin izan duten jokabidea.

Jakinekua da PPK Espainian izan duen agintaldian irakurketa bakarra ezarri nahi zuela; eta kontuan izan behar da Araban oraindik PPK agintzen duela. Pentsamendu bakar hori ezartzeko, ahalegin guztiak egin ditugu hondoratzeke. Adibidez, publizitate instituzionala, hau da, legez ezarri behar duena, ukatu egin digu azken bi urteetan behintzat. Denbora horretan, ez dugu euro bakar bat ere jaso ez Ara-

bako Diputaziotik ez eta Gasteizko Udaletik.

Baina hori gutxienezkoa da; jazarpena egin digu Alderdi Popularrak. Gaur egun, egunkariako kazetari bat auzipetuta dago informazio bat argitaratzeagatik. Epailetak izan ditugu, epaileak hirutan eman digu arrazoi, errekurritu egin dute eta orain, diru kantitate handia eskatzen digute. Kazetariak emandako informazioa, berriz, ondo dokumentatutako informazioa zen, PPK Araban egin zituen maniobra batzuen ingurukoa. Epaileak arrazoi eman

dio kazetariari, baina horiek ez dute amore ematen eta, beraz, jazarpenak oraindik jarraitu egiten du.

Beste arrazoiren bat?

Administrazio Kontseiluan lau lagun geratu dira. 20 inguru ziren hasieran, baina jendea ixten joan dira eta egun, lau baino ez dira gelditzen. Zergatik? Ezin dut gelditzea esan, baina Diputazioak asko jakingo du horretaz.

Euskadi Buru Batzarrean izan diren aldaketek eduki dute eraginik egunkariaren itxieran?

PP-REN JOKABIDEA

“Publizitate instituzionala ukatu egin digute Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak azken bi urteotan; kazetari bat epaitegietara eraman dute”

LANGILEEN EGOERA

“Enpresak hartu ditu konpromiso batzuk, kitapena (finikitoa) eta uztaileko paga ordaintzea, adibidez, baina hortik aurrera langabezia bakarrik gelditzen zaigu”

Ez dut uste. Enpresaburuak enpresaburuak dira, eta Administrazio Kontseiluan ez dago inor, ez EAJ, ez beste alderdi baten izenean, nahiz eta bakoitza gertuago egon alderdi batetik bestetik baino. Egoera politikoak beti agintzen du kasu hauetan, baina beste alde batetik agintzen du; Araban egoera politikoa da dena. Azken urteetan egunkariak zuen zorra murriztu egin dugu, baina ez dugu guztia ordaindu; arrazoi ekonomikoengatik itxi da *El Periódico de Álava* egunkaria, baina ikusi beharko da egoera hori zerk eragin edo sortu duen. EBBn egon diren aldaketei baino, gehiago begiratzen diot PPk izan duen jarrerari; hori bai izan dela erabakigarria.

Jaurlearitza ere dirulaguntza jaso zenuten gorabeherei aurre egiteko. Alderdi guztiek ez zuten ondo hartu laguntza hori ematea.

Egoera ekonomiko larria izan du azken urte hauetan, beste enpresa askotan gertatu den bezala. Ordainketa-etendura egoerara iritsi zenean, dirulaguntza eskatu zuen aurrera egiteko. Gero, noski, ordainketa-etendura jasotzen denean, itzuli egin behar da diru kopuru hori.

El Periódico de Álava-k duela urtebete inguru jaso zuen dirulaguntza Jaurlearitza, eta PSO-Ek eta PPk ez zuten gura, nahiz eta beste enpresa batzuei laguntzeko arazorik jarri ez. PSOEk diru kopuru horren kudeaketari eta legezotasunari buruzko galderak egin zituen, baina PPk aurkako jarrera izan du, erabatekoa.

Beti izan duzue aurka PP?

Bost urtetik hona agintzen du PPk Araban. Azken bi urteetan, ni egunkarian egon naizen denboran, behintzat, oso jarrera zuzena izan du, aurkakoa eta zuzena. PPren jokabidea joan den egu-

“Guk egin dugun egunkari hau ordezkatzeari zaila izango dela uste dut”

Azken editorialean argi salatu duzue PPren jarrera.

Gogorra izan da azken editoriala idaztea, baina ideiak garbi azaltzeko momentua ere izan da, eta Arabako Diputazioa ezin genuen aipatu gabe utzi. Diputazioaren jokabide maltzurra salatu genuen, daturik eman gabe, jakina, eta horrela geldituko da.

Langileek irakurleei eskerak emanaz agurtu dira.

Bai. 50 langile inguru genbiltzan, argazkilariak kontatu gabe.

Eta hemendik aurrera, zer?

Joan den egubakoitzean kaleratu genuen azken zenbakia, baina astean zehar lanean ibili dira langile asko, burokraziak eskatzen dituen paperak bete bitartean. Berez, enpresak hartu ditu konpromiso batzuk, kitapena edo finikitoa eta uztaileko paga ordaintzea, adibidez, baina hortik aurrera, langabezia gelditzen zaigu. Askok gazteak dira eta uste dut nola edo hala moldatuko direla. Egundak gogorrak dira guztiondako, baina uda ostean, gauza berrietan pentsatzen hasi gaitela sinetsi gura dut.

Diario de Noticias egunkariak Arabako Egunkaria berria kaleratuko duen



OIHANA ELORZA

zurrumuruak daude.

Nafarroarako egiten du lan *Diario de Noticias*-ek, eta ez dakit Arabako Egunkaria sortuko duen edo ez. Gipuzkoan ere antzerako egunkari bat ateratzeko asmoa dutela entzun dut duela lau urtetik on. Egia esan, nahiko lan zaila ikusten dut, behintzat asmoa *El Periódico de Álava* ordezkatzeari bada. Gure egunkaria Araban sortu zen, Araban egiten zuen lan. Guretzat gertuko informazioa zen garrantzitsuena, bertakoa, eta guk geuk lantzen genituen ondoen eta gehien. Zaila da lurralde bateko proiektu bat beste batean errotzea eta sendotzea.

IRAKURLE KOPURUA HANDITZEN ZIHOAN
“Azken bi urteetan, 9.000tik 21.000ra igo da irakurle kopurua, horrek eragina izan du publizitatean, eta zorra murriztea lortu dugu, baina ez guztia ordaintzea”

‘DIARIO DE NOTICIAS’-EN PROIEKTUA
“Guk gertuko informazioari ematen genion garrantzia, bertakoari, eta zaila iruditzen zait lurralde bateko proiektua beste batean errotzea”

bakoitzean gelditu zen garbi, egunkariaren azken zenbakia kaleratu genuen egun berean.

Ramon Rabanera Arabako diputatu nagusiari, hiru aldiz galdetu behar izan zioten *El Periódico de Álava* egunkariaren itxie-

rari buruzko iritzia. Azkenean, langile asko langabezia gelditzen direla deitoragarria zela esan zuen bakarrik. Ez zuen ezer esan enpresa desagertzen delako damututa, haserre edo kezkatuta zegoela. Erantzun horretan

dago benetako bere ardura. Berez, edozein enpresa ixtea da kezkarria, torlojuena, ehungintzarena edo komunikabideena izan, baina Rabanera ez zuen hori esan, langileen egoera bakarrik aipatu zuen.



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2004

Uztailaren 19an, astelehena,
20:30ean

Aurkezlea:
Julen Iriondo

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TOURRA 2004
Babeslea:



MUEBLES FERNANDEZ

Debagoieneko atletak ondo baino hobeto ibili dira uztailean

Espainiako Atletismo Txapelketetan lau domina eskuratu dituzte

XABIER URZELAI

Uztailean, Markel Blanco eta Maria Jose Gil arrasatearrak, eta Yerai Varela oñatiarra Espainiako Atletismo Txapelketetan izan dira. Maila polita erakutsita, ibarreko hiru atleta horiek lau domina eskuratu itzuli dira etxera.

Uztailean egin dituzte hainbat kategoriatako Espainiako Atletismo txapelketak, eta ibarreko hiru ordezkari dominekin itzuli dira. Markel Blancok zilarrezko domina ekarri zuen Huelvatik. Maria Jose Gilek urrezko bi domina ekarri ditu Sevillatik, eta Yerai Varela brontzearekin etorri da Galiziatik.

MARKEL BLANCO, KADETETAN

Uztaileko lehenengo asteburuan egin zuten Huelvan Espainiako kadete mailako atletismo proba, eta Markel Blanco gazte arrasatearra bigarrena izan zen 1.000 metroko lasterketan. Lehenengo sailkatu zenak, gainera, justu-justu irabazi zion, metro bateko alde baino ez zuen lortu-eta. Hala, balio handiko zilarrezko domina ekarri zuen Markelek Huelvatik. Arrasateko atleta gaztearendako, baina, denboraldia ez da oraindik amaitu. Espainiako Federazioak uztaile amaieran kontzentrazioa egingo du Estatuko atleta gazte onenekin, eta arrasatearra kontzentrazio horretan izango da.

YERAI VARELA, GAZTE MAILAN

Hamazazpi urte egin berri dituen Yerai Varela brontzezko dominarekin etorri berri da Galiziatik, El Ferrolen egin duten gazte mailako Espainiako Txa-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Nabarmendu diren debagoiendar korrikalari gehienak Arrasate-Oñati lasterketan ikusi genituen maiatzean.

Markel Blancok zilarra, Yerai Varelak brontzea eta Maria Jose Gilek urrezko bi domina ekarri dituzte Espainiako Txapelketetatik

Espainiako Txapelketetara joan aurretik, hiru atleta horiek Euskadiko Atletismo Txapelketetan nagusitu dira

pelketatik. Oñatiarrak 5.000 metroko lasterketan esku hartu zuen, eta aurreten pistan baino krosean gehiago ibili bada ere, Yeraik faborito asko atzean utzi eta hirugarren postuan helmugaratu zuen.

Atleta oñatiarrak seigarren marka onena zuen, baina ustez bera baino azkarragoak zirenei aurrea hartuta eskuratu zuen brontzea. Gainera, domina eskuratzeaz gain, Yeraik bere marka onena gaindi-

tu zuen, 15 minutu eta 52 segundo behar izan zituen eta bost kilometroko proba egiteko.

Merezitako atsedena hartuko du Oñatiko atletismoko promesak, Espainiako Txapelketan brontzea eskuratzeaz gain, Gipuzkoako Txapelketan urrea lortu zuen-eta 1.500 eta 5.000 metroko probetan. Horrez gain, Gipuzkoako Kros Txapelketan ere lehena izan zen, eta bigarrena Euskadiko Txapelketan.

MARIA JOSE GIL, BETERANOTAN

Ibarreko atletek egin duten lan ona borobildu du asteburuan Maria Jose Gilek. Beterano mailako atleta arrasatearra Sevillan izan da, eta urrezko bi domina ekarri ditu handik. Lehena zapatuan eskuratu zuen, 5.000 metroko lasterketan; eta, asteburua ondo baino hobeto amaitzeko, domekan, 1.500 metroko lasterketan ere bera izan zen azkarrena. Orain dela hilabete Euskadiko Txapelketa egin zuten Durangon, eta orduan ere, mondragoetarra azkarrena izan zen bi kategoria horietan. Sevillan, baina, Durangon egin-dako markak hobetu egin ditu. 5.000 metroko lasterketan, 22 minutu eta 42 segundoko denbora egin zuen, eta 1.500 metroko lasterketan, 6 minutu eta 14 segundo; 40 graduko tenperaturarekin, gainera.

Kirolabur

ELGETA/TOURRA

Espaloia Kafe Antzokiak Pirinioetako etapak ikuste-ko aukera ezin hobea eskainiko du gaur, bihar eta etzi, 4x3 metroko pantaila erraldoia jarriko dute-eta horretarako. Gainera, sariak banatuko dituzte: Euskalteleko kamisetak eta zapi laranja.

ELGETA/MENDIKO BIZIKLETA LASTERKETA

Euskadiko Mendiko Bizikleta Lasterketa jokatu-ko dute domekan Elgetan. 23 urte azpikoe eta elite mailakoek korrituko dute. Goizeko 10:00etan hasiko da proba eta 13:15ean amaituko da Elgetan bertan. Debarroko eta Durangaldeko herrietan barrena 124 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek.

ANTZUOLA/AEROMODELISMOA

Antzuolako jaiak direla-eta, aeromodelismo erakustaldia egingo du Helimodel talde zaragozarrak domeka goizean. Ekitaldia 11:00etan hasiko da, eta 13:00ak arte ibiliko dira; auto telegidatuekin, hegazkinekin eta helikopteroekin egingo dute erakustaldia.

GASTEIZ CUP/FUTBOLA

Joan den asteburuan, Gasteiz Cup futbol txapelketa ezagunean, ibarreko taldeek maila polita erakutsi zuten. B-12 kategorian, Arrasateko Aldi Trans nagusitu zen, eta B-14 kategorian aretxabaletarrek irabazi zuten. Gainontzeko taldeek ere lan ona egin zuten.



Fernando Markinaren bolada onak ez du behera egiten

Arkulari bergararra sasoi betean dago, joan den asteburuan Euskadiko Txapelketan erakutsi zuen moduan. Fernando Markina trebeena izan zen 70 metroko distantzia olinpikoan. Azken hilabetean hiru txapelketa eskuratu ditu Fernandok; uztailearen 31n Espainiako Txapelketan izango da, Lleidan.

URKIOLA
Barrenkalea 13. 943 76 16 48
BERGARA

% 50

uda'04

- Etxetresna elektrikoak
- Aire girotua
- Elektronika
- Telefonía

MILAR
milar da erraza da

ELKORO
Olarte 1
ARRASATE
Tel. 943 79 18 86

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez

EUSKAL OKELA

EUSKO LABEL

Eusko Labela duen bakarra

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

KALITATEA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA

ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI

ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

AZOREAK

**ESPERIENTZIA DESBERDINA
ETA NATURALA**



8 egun / 7 gau

Ostatua eta Gosaria

Irteera uztailearen 26an

DO MIRANTE APTH. ****

COMFORT INN PONTA DELGADA H. ***

ROYAL GARDEN H. **** Sup.

H. AVENIDA H. Nekazari Turismoa

550**522****617****656**

AZOREAK - SAN MIGUEL UHARTEA
Zatoz ezagutzera naturan barietate handia duen lekua:
• LUR BOLKANIKOAK • LAKU ZORAGARRIAK • UR TERMALAK •
LANDARETZA ZORAGARRIA DUTEN LEKU BIRJINAK • BALE-BAHATOKIA •
Gastronomia aberatsa arrainetan eta haragietan.
Europako kulturarik bitxienetakoa

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

Hegaldi Berezia Zuzenean

**Irteerak
MADRILDIK**

902 108 108 - viajesiberia.com

Irteerak Madrildik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean ostatua eta gosariarekin. Karburantearen igoerea, tasak eta gestio gastuak ez daude barne. Kontsulta ezazu Madrilerako hegaldiak. ESERLEKU MUGATUAK.

**400 bulego baino
gehiago zure zerbitzura**

GIPUZKOAKO BULEGOAK**DONOSTIA**

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San martin, 6 Tel. 943 42 00 71

ARRASATE

- Kontzezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

BERGARA

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

VIAJES  IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko uztailaren 16a

Kultura
eta
aisialdia



Uztailaren
16tik 23ra

15. or.

KAMISETA BERRI ETA KOLORETSUENAK ★ IBARREKOOK MODAN GUSTUKO DUGUNA ★ ZAPI, BAINU-JANTZI
ETA OSAGARRI MODERNOENAK ★ MARKAKOAK ZEIN ARTISAUAK ★ PERTSONALIZATZEA, BESTE AUKERA BAT



Udagiron...

ZOKETA
KARIBERA BIDAIA
BI LAGUNENDAKO

Astlehenero
Goienkaria-ren
harpidedunen artean

Zorte on!

Goienkaria

MAGAZIN BEREZIA BERGARAKO LASA JATETXETIK

Udagirot



Ikustekoa!

Gonbidatuak:

Aintzane Gardoki, Andoni Urtzelai, Pello Zabala...

Martitzenean, uztailaren 20an,
20:30ean

Aurkezleak:

Amagoia Lasagabaster eta Mainer Arregi

MODA/ GAUR EGUNGO KAMISETAK

Ibarrekook ere, moda berriekin bat

KAMISETA MODERNO ETA BIZIETATIK ABIATUTA, IBARREKOOK BAT EGIN DUGU BOLADA BERRIEKIN, ARROPA ETA OSAGARRIETAN

LEIRE KORTABARRIA

Kukuxumusu edo Loreak Mendian bezalako marka ezagunek markatu zuten hasiera, baina diseinuaren mundua ez da horietan bukatzen. Kolore eta diseinu gero eta biziagoetako kamisetak eskatzen dituzten jendeak, baita geurean ere, eta horiek lortzeko, irudimena da nagusi.

Atzean geratu dira kotoizko kamisetak zuri-zuriak gehiengo zireneko garaia. Euskaldunok gero eta ausartago bihurtu gara moda kontuetan, eta kolore biziak eta diseinu berriak ditugu orain gus-tukoago.

Kontua kamisetekin hasi zen: 90eko hamarkadan loratu zen Loreak Mendian marka, eta San Ferminen eskutik sortu zen Kukuxumusu. Biak ala biak, gaur egun, oso marka ezagunak dira, Euskal Herrian eta baita kanpoan ere, eta hainbat denda dituzte Estatuan eta beste herri batzuetan. Horrek lagunduta, aro berri bat hasi zen eguneroko jantzien arloan, Euskal Herrian. Kamiseten sukarra hedatzen joan zen, eta horren erakusgarri dira, esaterako, hainbat herritan egiten diren kamisetak jaialdiak edo lehiaketak: hor dago, esaterako, Ondarroako Euskal Herriko Kamiseta Azoka. Aurten, zazpigarren edizioa egin du.

Baina guretik irten gabe ere, badago moda horren adierazgarri-rik.

AUKERATUTAKO ARGAZKIA, SOINEAN

Debagoienez, oraindik behintzat, ez da kamiseta markarik



LEIRE KORTABARRIA

Akort denda, Bergaran, kamisetak pertsonalizatzen dituzte.



ISTILU

Euskal zapia da moda eskaintza berrienetako bat.

sortu, baina badago gure arropa itxuraldatzeko modua ere.

Izan ere, abangoardiako kamiseta markak sortu aurretik jardunean zebiltzan Bergarako Akort dendakoak; 14 urte darumate lanean, eta arrakasta handiarekin. Hor, aukerako kamiseta erosi, edozein kolore eta tankerakoa, eta nork bere gustuko egiteko modua dago, argazki edo bestelako irudiren bat plantxa berezi batzuen bidez bertan seri-

grafiatu edo inprimatuz. Fatima eta Juan arduradunek diotenez, "makina bat aukera dago. Askotan, jendeak ekartzen digu nahi duten argazkia, gurean erosten du kamiseta eta guk argazkiarekin apaintzen dugu. Horrelako bakarra edo nahi beste egin daitezke, adibidez, agur afarietarako, jaietarako, kirrol taldeetarako... eskakizun asko izaten ditugu".

Beste aukera bat da norberak ideia eramatea eta dendakoek

ideia hori egi bihurtzen laguntzea.

Artisautzak ere bere lekua du diseinuaren munduan. Besteak beste, Debagoienera sarri etortzen da Sandra Fernandez artisaua. "Pintzela hartu eta burura dator-kidana margotzen dut", diosku berak. Batik bat, umeendako arropa diseinatzen du Gipuzkoan finkatutako diseinatzaile katalanak, eta horren ikur bereizgarria da janzki bakoitza beste guztietatik desberdina dela.



NAHIA MERINO LARRAÑAGA / ISTILU BANAKETAK

"Kolore biziagoak eskatzen ditu orain jendeak"

Deba arroan ere, diseinu eta arropa moderno banaketa enpresak loratzen ari dira. Horren eredu bat da Istilu, Debabarrenean sortutako enpresa, baina Euskal Herri osoan lan egiten duena. Nahia Merino Larrañaga da sortzaile eta arduraduna.

Zein da Istiluren lan esparrua?

Gure marka propioa dugu, baina beste euskal marka batzuen produktuak ere banatzen ditugu: Rajasthan, Kili-Kili, Kiliken... Hasieran, katalogoak eta egiten genituen; orain bi urtetik, buru-belarri hasi ginen produktuak saldu eta banatzen.

Eta zein da zuen eskaintza? Kamisetak izango dira nagusi...

Denetariko arropa saltzen dugu: kamisetak, bai, baina baita tangak ere; euskal zapia, buruan zein gerrian erabil daitekeena, adibidez; barruko zein kanpoko arropa eta osagarriak, udako eta negurako arropa... Adin guztietako jendearendako arropa dugu, eta baita haurdunendako ere. Denetarik, hortaz.

Euskaldunok gero eta ausartagoak gara arroparekin, ala?

Kolore aldetik, bai; oso kolore biziak eskatzen ditu orain jendeak. Beltza beti egon da modan. Orain, urdina, berdea, morea... horiek ere asko eskatzen dituzte. Horretan asko aldatu dira gauzak.

Diseinu aldetik, egoera guztietan, egunero erabiltzeko arropa egiten dugu.

Zein motatako diseinuak lantzen dituzue?

Beti ere, euskal kulturaren inguruko diseinu eta marrazkiak erabiltzen ditugu. Baita, gurean gertatzen diren kontuak edo albisteak aintzat hartuta, diseinuak egiten ditugu, edo omenaldi txikiak ere.

Non saltzen dituzue produktuok?

Gehienbat, herrietako azokatan. Bizitasun handia ematen dio azokari, jende gaztea berehala hurbiltzen da eta berritasun ukitua ematen dio horrelako arropa salmenta postua egoteak. Hala



Nahia Merino Larrañaga.

ere, Gipuzkoako azoketan parte hartzea oso garestia eta zaila da; Bizkaian errazago lortu izan ditut parte hartzeko baimenak. Istiluren izena aditzera ematea ez da zaila izan; zailena da azoketarako baimenak lortzea.

Istiluren produkturen bat erosi gurako lukeen debagoiendar batek zein bide du horretarako?

Gipuzkoan, esan bezala, azoka gutxiagotan egoteko aukera izan dugu; azkena, Oreretan. Debagoienetik gertuen, Elorrioko azokan egon gara. Edozelan ere, Interneten ere ikusi eta erosi daitezke gure produktuak, www.istilu.com webgunean, hain zuzen ere.

Uztailak 16-23

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARETXABALETA

► **Euskal Presoak Euskal Herrira astearren barne**, honako ekintzak izango dira bihar, zapatua: Kurtzebarria mendiri martxa (Herriko Plazan bilduko dira, 09:00etan); herri-bazkaria Urbaltzeko plazan, 14:30ean, eta segidan, bertso emanaldia eta argazki erakusketako sari banaketa; arratsaldean, batukada, eta 19:30ean, trikitalarien kalejira Durana kalean. Etzi, domeka, hitzaldia izango da Orlyn, 22:00etan.

► **KZGuneak hainbat promozio** antolatu ditu hil honetarako. Hain zuzen, uztailean Interneteko ikastaroa egiten duenari autorako parasola oparitu diote; beste lagun bat ekarri gero ikastaroa egitera, zira emango diote; eta Interneteko doako ikastaroren bat egiten duten guztien artean, baserri turismoan lau egonaldi zotz egingo dituzte.

► **80ko kintoek batzarra** izango dute bihar, zapatua. Poteoa eta afaria izango dute Taberna Berrin. Izena emateko, eman 10 euro jatetxe horretan edo deitu 943 79 61 42 telefonora.

ARRASATE

► **Gazteen Munduko Jaialdian** parte hartzeko izenemate epea luzatu egin dute etzira arte, domeka. Udala Gaztedia batzordeak joan-etorria ordainduko die parte hartzen duten arrasatearrei. Argibideetarako, jo Gazte Informazio Zerbitzura (943 77 00 65).

► **Musakolako kiroldegiak** honako ordutegia izango du udan: astegunetan, 08:30-21:30; asteburuetan, 08:30-21:00. Kanpoko igerilekuak zabalik izango dira egunero, 09:30etik 20:30era bitartean.

► **Zahar Berri taldeak** eragilea behar du, eguneko lau orduko lana egiteko. Taldearen helburua da euskaldun berriei euskaraz egiteko aukerak ematea, euskaldun zaharrek. Baldintzak dira euskara maila ona izatea, jendearekin harremanak egiteko erraztasuna, eta Arrasateko edo inguruko izatea. Bidali curriculumak honako helbidera: AED, Pablo Uranga 4, 20500 Arrasate. Mugaeguna bihar duzue, zapatua.

BERGARA

► **Aritzeta abesbatzaren zozketan**, 3.282 zenbakidun txartelak irabazi du lehen saria. Horren jabea ez bada agertzen, 2.695 izango da zenbaki sariduna. Abuztuaren 4ra bitartean duzue saria jasotzeko epea.

► **Odol-ateratzeak** izango dira eguaztenean, hilak 21, seminarioan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

► **Atzegi taldeak aisialdiko begiraleak behar ditu** Bergarako Txolarte aisialdi kluberako. Baldintza bakarra da 18 urte beteta izatea. Harremanetarako, deitu 943 42 39 42

telefonora eta galdetu Aitor Rodrigue-zengatik.

ESKORIATZA

► **Bi udal lanposturako deialdia** egin dute: udaltzaina eta liburutegi laguntzailea. Baldintzak, frogak, gaiak eta bestelako informazioa www.eskoriatza.net webgunean duzue, edo Eskoriatzako udaletxeko bulegoetan.

► **Jaietako argazkiak** ikus daitezke www.festak.com webgunean.

Argazkiak erosteko aukera ere badago. Kultura Batzordeak gogorarazten du liburutegiko (ordutegia: 16:30-19:30) eta KZGune (08:00-11:30) ordenagailuak erabili daitezkeela horretarako.

OÑATI

► **Igerilekuko eta solariumeko** udako ordutegia honakoa izango da: uztailean, astelehenean egubakoitzera, 09:00-21:00; zapatua, domeka eta jai egunetan, 10:00-20:00.

► **Danborradan parte hartzeko izenemate epea** datorren egubakoitzera arte, hilak 23, dago zabalik. Hain zuzen, honakoak behar dituzte: danbor-jotzaile moduan irteteko gertu dauden 18 urtetik gorakoak, eta 1987.ean

jaiotakoak, dantzari moduan irteteko. Izena emateko, jo kultura etxera edo gaztelekura.

► **Haitiko eta Dominikar Errepublikako kaltetuei** laguntzeko diru-bilketa deitu dute Udala Ongizate Batzordeak eta Elizbarrutiak. Hain zuzen, maiatzaren 24ko euri-jasa bortitzak kaltetutakoei lagundu gura diete. Bi kontu zabaldu dituzte horretarako: Kutxan, 2101 0057 57 123325870; Euskadiko Kutxan, 3035 0005 30 0050032138.

► **Oñatiko ondarea ezagutzeko** hainbat ibilbide gidatu antolatu ditu Turismo Bulegoak. Hain zuzen, arte eta historiaren inguruko bi ibilbide daude aukeran, bata uztaile eta abuztuaren artean, beste abuztuaren artean. Uztaile eta abuztukoak Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia erakusten ditu. Bestalde, natura ondarearen gaineko zortzi ibilbide daude abian. Datozen egunotan, hauek daude antolatuta: bihar, zapatua, *Mendiko larreak eta artzantza* delakoa (8 euro pertsonako); eta etzi, domeka, *Araotzeko auzuneak* (5 euro pertsonako). Argibideetarako eta izena emateko, deitu 943 78 34 53 telefonora.

LEHIAKETAK

DEBAGOIENA

► **Nekazal mundurako ideia berritzaile** lehiaketa deitu du Deba Garaia Elkarteak. Lehenak 1.000 euroko saria irabaziko du; bigarrenak, 500. Ideiak berria izan behar du, eta aurreproiektua aurkeztu behar da. Mugaeguna da irailaren 20a, eta euren egoitzan aurkeztu behar dira proiektuak, Bergarako Urteaga kaleko 23an. Argibideetarako, deitu 943 76 02 94 telefono zenbakira.

OÑATI

► **San Migel jaietako kartela aukeratzeko** lehiaketa deitu du Kultura Batzordeak. 250 euroko lehen saria banatuko dute, eta 125 euroko bigarren sari bat. Oñatin jaio edo bizi den edozeinek parte hartu ahal izango du. Teknika libre izango da, eta *Oñatiko Jaixak 2004* testuak derrigorrez agertu beharko du. Lanak turismo bulegoan edo kultura etxean utzi beharko dira, uztailearen 23a baino lehen.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Mairuaren Alardea** ospatuko dute bihar, zapatua, kaleetan eta Herriko Plazan, 18:00etan.

ARRASATE

► **Santa Marina jaiak** ospatuko dituzte auzo horretan gaur hasi, egubakoitza, eta domekara bitartean. Gaur, egubakoitza, umeendako txokolatada, bandera igoera, Estampas de Mexico mariachiaren emanaldia, eta diskoteka ibiltaria izango dira. Bihar, zapatua, diana, Interpueblos pilota txapelketako finalak, Makatzenan; bolo palma txapelketa, erretiratuendako bazkaria, hainbat txapelketa, pailazoak eta dantzaldia izango dira, besteak beste; eta etzi, domeka, umeendako jolasak eta puzgarriak, txapelketetako finalak, dantzaldia... izango dira.

BERGARA

► **Santa Marina jaiak** ospatuko dituzte egunotan. Gaur, egubakoitza, erretiratuendako ibilaldia, hainbat jokotako finalak eta sari banaketa, XIII. Boccia Txapelketa eta petrikol dastaketa izango dira. Bihar, zapatua, Santamarinako XIII. Txirindularitza Saria jokatu dute; 19:00etan, meza eta Aritzeta emanaldia izango dira; eta gauean, disko festa. Azkenik, etzi, domeka, Santamarinaren Eguna ospatuko dute: txistularien eta Bandaren kalejira, meza nagusia udal korporazioarekin, eta Bandaren kontzertua izango dira, eguerdira bitartean.

► **Basalgo auzoko jaiak** ospatzen hasiko dira datorren egubakoitzean, hilak 23. Egun horretan, 09:00etan, kanpai jotzearekin eta etxafuegoekin jakinaraziko dute jaien hasiera. Gero, makala jasoko dute.

ANTZERKIA

ELORRIO

► **La Banda** taldeak kale antzerki emanaldia egingo du etzi, domeka, frontoian, 20:00etan. Musikaire jaialdiaren barne antolatutako ekintza dugu hau.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Rock kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, Zurrategin, 23:00etan.

ARETXABALETA

► **Never Surrender** taldearen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Ezkutu tabernan, 22:30ean. Euskal Presoak Euskal Herrira Astearren barne antolatu dute ekintza hori.



► KONTZERTUA

RAFA RUEDA, ARRASATEN

Topagunearen Kultur Errota egitasmoaren barne, Rafa Rueda musikariaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu gaur, egubakoitza. Mondragoen izango da emanaldia, aire zabalekoa, gainera. AED euskara elkarteak antolatu du kontzertua, Topagunearen eskutik. Musikari mungiarrek bakarkako ibilbideari eutsi zion PiLT taldeko abeslaria izan ondoren; Metak diskoetxearekin, Kea izeneko diskoa grabatu zuen. PiLT taldearen metal estiloa alde batera utzita, pop-rock doinuak jorratzen ditu orain Ruedak, eta horietan eskainiko dizkigu gaurko emanaldian.

Non: Arrasateko Ferreriasko plazan.

Noiz: gaur, hilak 16, egubakoitza.

Ordua: 23:00.

Antolatzailea: AED, Kultur Errotaren eskutik.

Zinema

BERGARA

► **Los Fastuosos de la Rivera** taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espoioan, 22:30ean. Rhythm & blues eta funky musika emanaldia izango da.

► **Aritzeta abesbatzak** emanaldia egingo du bihar, zapatua. Izan ere, meza izango da Santa Marinaran, 19:00etan, eta abesbatzak horren ondoren egingo du emanaldia.

► **Virulentos (Bartzelona), Hasta encontrar algo mejor (Iruñea) eta Hachazo (Leon)** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Udal Musika Bandak** bi emanaldi egingo ditu etzi, domeka: 11:00etan, kalejira, eta 12:30ean, frontoian, kontzertua.

ELORRIO

► **Musikaire jaialdiaren barne**, honako kontzertuak izango dira egunotan: gaur, egubakoitza, Savina Yannatou & Primavera en Salonico talde greziarra, elizpean, 22:30ean; bihar, zapatua, Lewis Trio talde kubatarra, Berrio-Otxoa kalean, 22:30ean; eta hilaren 23an, egubakoitza, Vox Vocis talde madrildarra, elizan, 22:30ean.

OÑATI

► **Neubat** talde gasteiztarrak *Dantzaldiko erreginak* lana aurkeztuko du. Oñatiko Sharon Stoner taldeak parte hartu du disko horretan. Gasteiztarrekin batera, Boogie Van taldea izango da. Saioa gaur, egubakoitza, izango da, gaztelekuan, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Zeramika erakusketa** zabaldu dute Loixe elkarteak ikasleek. Gaur eta bihar dituzue erakusketa ikusteko azken egunak, Monterron jauregian, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

ESKORIATZA

► **Museo Eskolan** hiru erakusketa daude zabalik: Aita Emiliano Barandiaranen gainekoa, baserriko txerri lanen ingurukoa, eta trenaren eboluzioaren ingurukoa. Hauxe duzue uztaileko ordutegi berria: 09:00-13:30 eta 16:00-19:00. Asteburuetako ordutegia da 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **A-1 autopista Eskoriatzan: inpaktua gutxitzeko proposamenak** delako erakusketa dago zabalik hil osoan kultura etxean.

ARRASATE

MONTERRON

Atún y chocolate
Egubakoitza, hilak 23: 22:30.

OÑATI

OÑATIKO ZINEMA

El castigador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

El señor de los anillos: la comunidad del anillo
Egubakoitza, hilak 16: 22:30.

ARETXABAETA

HERRIKO PLAZA

Euskal pilota
Egubakoitza, hilak 16: 22:30.

Chihiroren bidaia
Martitzena: 22:30.

Te doy mis ojos
Egubakoitza, hilak 23: 22:30.

ESKORIATZA

HERRIKO PLAZA

Recién casados
Egubakoitza, hilak 16: 22:15.

Atrápame si puedes
Astelehena: 22:15.

Asterix menhirkada
Eguaztena: 22:15.

Piratas del Caribe
Egubakoitza, hilak 23: 22:15.

EIBAR

UNZAGA

Spider-man 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

RIALTO

Shrek 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

GURIDI

Troya
18:00, 22:00.

Pinotxo 3000 (Euskaraz)
16:30, 18:30.

Shrek 2
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

El día de mañana
17:30, 20:00, 22:30.

Spider-man 2
17:30, 20:00, 22:30.

Whale rider
20:00, 22:30.

Seres queridos
17:30, 20:00, 22:30.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
17:00, 19:45, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Ladykillers
17:15, 20:00, 22:30.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
17:00, 19:45, 22:45.

Secretary
17:15, 20:00, 22:30.

Shrek 2
16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

Troya
Egubakoitza: 19:45, 22:45.
Zapatua: 16:45, 19:45, 22:45.
Domeka: 17:30, 20:30.

Kill Bill I
17:15, 20:00, 22:30.

El día de mañana
17:05, 19:50, 22:35.

Spider-man 2
17:30, 20:15, 22:45.

Antonia, una historia de Chile
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

FLORIDA-GURIDI

La herencia
18:00, 20:15, 22:30.

Ladykillers
20:15.

El último beso
18:00, 20:15, 22:30.

Cuentos de Tokio (J.B.A.)
18:00, 22:00.

Incautos
18:00, 20:15, 22:30.

La casa de los Baby
18:00, 22:30.

Iris
18:00, 20:15, 22:30.

Lee mis labios
18:00, 20:15, 22:30.

ABACO-LAKUA ZINEMAK

FBI
16:10, 18:00.

Spider-man 2
16:30, 19:20, 22:20, 01:00.

Shrek 2
16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:45.

Amor sin condiciones
17:00, 19:30, 22:20, 00:45.

El misterio de Wells
20:00, 22:30, 00:45.

Seres queridos
16:20, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
16:10, 19:10, 22:10, 01:00.

Troya
16:00, 19:10, 22:10, 01:10.

El día de mañana
16:45, 19:30, 22:20, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Van Helsing
Egubakoitza: 17:00, 19:45.
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 16:10, 22:30.

Shrek 2

12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Dirty dancing 2
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El efecto mariposa
Egubakoitza: 16:30, 19:00, 21:45.
Zapatua: 16:30, 19:00, 21:45.
Domeka: 12:15, 22:45.

Troya
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:30, 23:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 19:00, 22:15.

La valiente (laburra) Incautos
20:15, 22:35, 01:00.

Shin Chan, operación rescate
12:15, 16:35, 18:25.

Giro inesperado
20:40, 22:40, 00:40.

Spartan
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

El castigador
19:40, 22:25, 00:45.

Ladykillers
12:15, 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:25.

El día de mañana
12:15, 17:35, 20:05, 22:35, 01:00.

Scooby doo 2
12:15, 16:10, 17:55.

Spider-man 2
12:15, 16:00, 17:15, 18:45, 20:00, 21:30, 22:45, 00:15.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Pinocho 3000
12:15, 16:40, 18:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

ÁBACO BOULEVARD

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
12:00, 16:00, 19:00, 22:00.

Dirty dancing 2
12:20, 16:15, 18:10, 20:10, 22:15, 00:30.

Spider-man 2
12:00, 12:30, 16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:45, 01:00.

Pinocho 3000
12:20, 16:05, 18:00.

Ladykillers
20:00, 22:30, 01:00.

Spartan
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 01:00.

Incautos
20:00, 22:30, 01:00.

Troya
12:00, 16:00, 19:00, 22:10, 01:10.

Shin Chan, operación rescate
12:15, 16:15, 18:20.

Tánger
12:20, 16:30.

Shrek 2
12:15, 16:10, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El día de mañana
12:10, 16:10, 19:10, 22:15, 01:00.

El castigador
20:20, 22:40, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Te doy mis ojos: ●●●● / Shrek 2: ●●● / Kill Bill I: ●●● / Ladykillers: ●●● / Troya: ●●● / El señor de los anillos: ●●● / Atrápame si puedes: ●● / Van Helsing: ● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

SPARTAN

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: David Mamet.

AKTOREAK: Val Kilmer, William H. Macy.

Duela hilabete batzuk, zinemari deskainitako tarte honetan, David Mamet-en *El último golpe*-ren komentarioa egin genuen. Gaur, idazle, gidoilari eta zuzendari honen azkeneko filma dakargu: *Spartan*. Egia esateko, lan honek erabiltzen dituen osagaiak eta dauzkan akatsak kontuan izanda, *El último golpe*-rekin antz eta lotura nabarmenak dituela esan daiteke.

El último golpe-k lapurreta handi bat burutu nahi duen talde bat erabiltzen zuen lapurreta hori zehaztasun handiz azaltzeko. *Spartan* bahiketa baten istorioa da. Ikasle gazte batek neska bat bahituko du emakumezkoen salerosketaren munduan sartzeko. Neska hori Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen alaba da, eta hortik aurrera guztia trabatu egingo da. Bi filmetan, ikuslea harritu nahian, efektu kolpe handiak ematen dira, baina horren azpitik, gainazaleko pertsonaiak eta istorio nahiko hutsak daude. Lapurren mundua Ameriketako Estatu Batuetako adimen zerbitzuen munduarengatik aldatzen den arren, lortutako emaitzak antzekoak dira: dotoreziaz, sendotasunez eta eritimo egokian filmatutako lanak, baina gidoi aldetik interes gutxi duten istorioak. Ez dakigu ia ezer pertsonaien gainean, agertzen eta desagertu egiten dira



pantailan, eta horrela ezer gutxi axola zaigu horiei gertatzen zaiena. *Spartan*-en gidoiak ezuste eta biraketa handiak ditu, baina azken finean, kontatzen zaigun istorioa oso arrunta da.

Hau dela eta, beharrezkoa egiten zaigu Mamet zuzendaria eta Mamet

gidoilaria bereiztea. Mameti asko gustatzen zaio ezuste, korapilo eta biraketa handiak dituzten istorioak azaltzea; zalantza barik, honen adibide distiratsua dugu *Casa de juegos*. Tamalez, ordea, azkeneko urteetan, *La Trama*-rekin edo gaur aipatutako bi filmekin, *El último golpe* eta *Spartan*, bistan da Mamet nahiko galduta dagoela mota honetako lanetan.

Dena den, zuzendaritza aldetik, filmak badu estilo urria, zuzena eta erakargarria, eta horrela, *Spartan*, nahiz interes handia ez eduki, ikus daitekeen lan bihurtzen da.

Azaldutako guztia kontuan edukita, *Homicidio* edo *El caso Winslow* egiten zituen artistaren berragerpenari itxoi-tea besterik ez zaigu geratzen.

